

- ❖ Abiapuntua: “BJLOk zehaztuko du epaitegiak eta auzitegiak nola osatu behar diren, nola jardun behar duten eta nola gobernatu behar diren; halaber zehaztuko du zer estatutu juridiko dagokien karrerako epaile eta magistratuei, kidego bakar bat osatuko baitute, eta Justizia Administrazioaren zerbitzuko enplegatuei” (EK 122.1 art.).
- ❖ Ezberdindu:
 - A. Pertsonal jurisdikzionala (epaile + magistratu)
 - B. Justizia Administrazioaren zerbitzuan dagoen pertsonala:
 - 1. Pertsonal laguntzailea/auxiliarra (Justizia administrazioko letratua + zerbitzuko funtzionarioak + polizia judiziala)
 - 2. Pertsonal kolaboratzailea/lankidea (Fiskaltza + Estatuko abokatua)
 - C. Defentsa eta ordezkari teknikoak

I. PERTSONAL AUXILIARRA EDO LAGUNTZAILEA (pertsonal jurisdikzionalaren menpe jardun)

A. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO LETRATUA

- a. Kontzeptua (BJLO 440 art.): “Justizia Administrazioko Letratuak funtzionario publikoak dira, kidego juridiko nagusi bakar eta izaera nazionalak eratzten dutenak, Justizia Administrazioaren zerbitzuan eta Justizia Ministerioaren menpe, eta beren funtzioak autoritate gisa betetzen dituztenak, bulego judiziala zuzenduz”.
 - ❖ Kidego Juridiko Nagusi nazionala (Cuerpo Superior Jurídico) osatzen duten funtzionario publikoak
 - ❖ Justizia Ministerioaren menpe daude eta modu hierarkikoan (dependentean) antolatuta
 - ❖ Autoritatez egikaritzen dituzte beraien funtzioak, bulego judiziala zuzenduz
- b. Eraentza juridikoa (BJLO 440-469 art. + Justizia Administrazioko Letratuen Erregelamendu Organikoa)
 - i. Sarrera baldintzak, kategoriak eta postuen hornikuntza
 - 1. Sartzeko baldintzak (BJLO 442-443 art.)
 - Nazionalitate espainiarra
 - Zuzenbidean graduduna
 - Ezgaitasun edo bateraezintasun arrazoirik ez izatea
 - probak gainditu + ikastaro teoriko-praktikoa

Sarrera:

- Postuen %30 → barruko promozioa
Kudeaketa prozesal eta adm.ko kidegoko funtzionarioak aurkez daitezke oposizio-lehiaketara (+2 urteko zerbitzua bete)
- % 70 → oposizio askea (salb. oposizio-lehiaketa)

2. Kategoriak (BJLO 441 art.): 1, 2, 3 (hirugarrenetik sartu eta igoz doaz)

3. Postuen hornikuntza (BJLO 450 art.)

- a) bide arrunta → lehiaketa
- b) zuzendaritza eta erantzukizun bereziko postuak: Justizia Ministerioak erabakitzen ditu askatasunez

4. Ordezkapena (BJLO 451 art.):

- a. Elkarren arteko ordezkapena
- b. Ordezko idazkari judizialak

ii. Egoera administratiboak, erretiroa, ezgaitasunak eta debekuak (BJLO 444 eta 445 art.): = epaile eta magistratuak (salb. BJLO 395 art.: alderdi politiko edo sindikatuetakoko kide izan daitezke eta jarduera politikoa izan dezakete)

Abstentzio eta errekusazio arrazoiak (BJLO 446 art.): = epaile eta magistratuak (salb. ezin dira errekusatu haien ardurapeko eginbide edo jardun judizialek dirauten bitartean).

iii. Eskubideak eta betebeharrak

- 1. Funtzio nagusia: fede publiko judizialaren emaile dira, autonomiaz eta independentziaz, legezkotasun eta inpartzialtasun printzipioen menpe honakoak BERMATZEN DITU: prozeduraren garapen egokia + prozesuan parte hartzen dutenen eskubideen errespetua
- 2. Eskubideak: a) agintari izaera du, b) soldata jaso, c) epaile/magistratuen parean eseri

iv. Erantzukizun diziplinarioa (BJLO 468-469 art.)

- 1. Falten sailkapena: oso laria, larriak eta arinak
- 2. Espediente diziplinarioen izapidetzea Justizia Ministerioari dagokio; baina Ministerioak berak, Gobernu-Idazkariak eta Probintzia-Idazkari Koordinatzaileak hasten ditu.
- 3. Ezartzeko organo eskuduna: ezarri beharreko zigorraren arabera

- c. Funtzioak (BJLO 452-462 art.). “Idazkari judizialek, beren funtzioetako jardunean, legezatasun eta inpartzialtasun printzipioen arabera jokatuko dute beti; autonomia eta independentzia printzipioen arabera, fede publiko judiziala ematen ari direnean; eta jarduera-batasun eta hierarkia-mendekotasun printzipioen arabera, lege honen, kasuan kasuko prozedura-arauek eta beren erregelamendu organikoak esleituriko gainerako funtzio guztietan” (BJLO 452 art.)
- i. Fede publikoa eman, baita dokumentuena ere (BJLO 452-459 art.)
 - Bere sinadura duten dokumentu eta agiriak egiazkotzat hartuko dira prozesuan
 - Auzitegiaren barruan edo organoaren aurrean burututako egintza guztien fede ematen du
 - Epaietan ordezkari baimentzen du
 - Prozesuan grabatu edo erreproduzitutako guztiaren egiazkotasuna bermatzen du
 - Dokumentazioaz arduratu
 - Ziurtagiriak egin...
 - ii. Kontu ematea (dación de cuenta) (BJLO 455 art.)
 - Epai edo magistratuari jakinaraztea alderdiek idatziz egindako egintzak eta haien aurrean burutu ez diren jarduerak
 - iii. Prozesuari bultzada eman (BJLO 456 art.) eginbideen bidez:
 - Izapidetza-eginbideak
 - Jasotze-eginbideak
 - Komunikazio-eginbideak
 - Exekuzio-eginbideak
 - iv. Bulego judizialekoak, burokratikoak
 - Bulego judizialeko langileak gidatu
 - Artxiboaren erantzulea da (auto eta espedienteen zaintza)
 - Espedienteei lotutako ondasunen gordailuen arduraduna
 - Tributuen kudeaketan administrazioa lagundu
 - Kostuen tasazioa egin
 - Estadistika judiziala
- d. Letratuen antolamendua:
- Justizia Ministerioaren menpe, modu hierarkikoan antolatu (dependentean)
 - Idazkaritza-batzordea sortu: ministerioaren aholku organoa
 - Goi-organoak:
 - i. Gobernu idazkaria (AGn, ANn eta JANetan)

1. Justizia Ministerioak izendatzen ditu, zerbitzuan 10 urte baino gehiago dituzten 2. kategoriako idazkarien artean.
 2. Funtzioak: espediente diziplinarioak hastea, baimen eta lizentziak ematea, izendapen libreko letratuen proposamenak egitea...(BJLO 465 art.).
- ii. Probintzia-idazkari koordinatzailea (probintzia bakoitzean bat):
1. Justizia Ministerioak izendatu, Gobernuko Idazkariaren proposamenez
 2. Funtzioak: zirkularren betepena kontrolatu, ordezkapenak, abstentzioak argitu... (BJLO 467 art.)

B. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZUPEKO FUNTZIONARIOEN KIDEGOA

- Kidego orokorrak:
 - a) Kudeaketa prozesal eta Administratiboko Kidegoa (Gestión),
 - b) Izapidetza Prozesal eta Administratiboko Kidegoa (Tramitación),
 - c) Laguntza Judizialeko Kidegoa (Auxilio)
 - Kidego bereziak:
 - d) Auzitegiko medikuak,
 - e) Toxikologiako Institutu Nazionala eta Medizina Legaleko Institutuak (bertako laborategiko laguntzaileak)
 - Bestelakoak: behin-behineko funtzionarioak, itzultzaileak, bankuak...
- a. Kudeaketa prozesal eta Administratiboko Kidegoa (Gestión):
 - i. Titulazioa: Unibertsitate-Diplomatura edo parekoa.
 - ii. Funtzioak (BJLO 476 art.):
 - Auzien kudeaketa eramatea, Idazkari Judizialekin kolaboratuz.
 - goi mailako jarduera prozesalean kolaboratzen du.
 - prozeduraren izapidetzea kudeatzea Idazkari Judizialari kontuak emanez,
 - alderdien aurkezpenak dokumentatzea eta sinatzea,
 - enbargoak eta kanporatzeak dokumentatzea,
 - aurkeztutako idazki eta dokumentuak erregistratze...
 - b. Izapidetza Prozesal eta Administratiboko Kidegoa (Tramitación):
 - i. Titulazioa: Batxilergoa edo parekoa.
 - ii. Funtzioak (BJLO 477 ter):
 - Kudeaketa prozesalaren betebeharrei laguntza ematea.

- Prozeduraren izapidetze orokorra, dokumentuak, aktak, eginbideak, eginez;
 - gutunak erregistratzea eta sailkatzea...
- c. Laguntza judizialeko Kidegoa (Auxilio):
- i. Titulazioa: DBH titulua edo parekoa.
 - ii. Funtzioak (BJLO 478):
 - Polizia judizial gisa jarduten dute, autoritatearen agenteen funtzioak betez.
 - enbargoak eta kanporatzeak betearaztea,
 - komunikazio-egintzak egitea,
 - bistako saletan ordena mantentzea...
- d. Auzitegiko medikuak (BJLO 479):
- i. Titulazioa: Medikuntza ikasketak
 - ii. Justizia Administrazioaren zerbitzuean dagoen goi mailako Kidego tituludunak.
 - iii. Eginkizuna:
 - Bere lanbidearekin zerikusia duen laguntza teknikoa ematea Organo jurisdikzionaleri eta Fiskaltzari.
 - garrantzitsuenak zigor prozesuan burututakoak: adib. preso eta atxilotuak aztertzen dituzte hauek honela eskatuz gero eta txostenak egiten dituzte.
- e. Toxikologiako Institutu Nazionala eta Medizina legaleko institutuak (BJLO 479-480 art.):
- i. Toxikologiako Institutu Nazional bat Estatu osorako
 - ii. Medizina Legaleko Institutuak EEAA bakoitzean bat
- Oro har funtzio bi:
- Justizia Administrazioari laguntza ematen dioten organo teknikoak
 - Txosten toxikologikoak, ADN azterketak...

C. POLIZIA JUDIZIALA

- a. Arauketa:
- EK 126 art.: “Polizia Judizialak auzitegi eta Ministerio Fiskalaren menpe jarduten du delituak ikertzeko, delitugileak bilatzeko eta segurtatzeko, legeak zehaztutako baldintzen arabera”.
 - BJLO 547-550 art.
 - martxoaren 13ko 2/1986 LO, Estatuko Segurtasuneko Indar eta Kidegoena
 - ekainaren 19ko 769/1987 ED, Polizia Judizialaren arautzeari buruzkoa
- b. Kontzeptua: Justizia Administrazioaren organo laguntzailea; funtzionalki epaitegi eta auzitegien menpe dago, baina organikoki Barne Ministerioaren menpekoa da.

- c. Funtzioak (BJLO 549 art.):
 - i. Zigor prozesuari lotutakoak: delituak ikertzea eta argitzea eta ustezko delitugileak bilatzea.
 - ii. Bestelakoak: indarra beharrezkoa denean egintzen burutze materiala; epailearen edo fiskalaren ebazpen eta aginduak betearazi; aginte judizial edo fiskalari laguntza ematea egoitzatik kanpo burutu beharreko egintzetan
- d. Antolakuntza:
 - i. Ez dago benetako polizia judizialik. Honen funtzioak Estatuko Segurtasuneko Indar eta Kidego guztiei dagozkie (BJLO 547 art.).
 - ii. Polizia judizialaren unitateak (BJLO 548 art.): organikoki Barne Ministerioaren menpekoak dira baina funtzionalki epaitegi, auzitegien eta Fiskaltzaren menpe jarduten dute.

II. PERTSONAL KOLABORATZAILEA EDO LANKIDEA (ez daude epaile/magistratuen menpe)

- ❖ Ahalmen jurisdikzionalik ez duen pertsonala
- ❖ Ez daude epaile/magistratuen menpe, ez organikoki ez funtzionalki

a) FISKALTZA

- a. Izaera juridikoa
 - i. EK-ren 124.2 art.: “Fiskaltzak berezko organoen bitartez betetzen ditu bere eginkizunak, ekintza-batasunaren eta hierarkia-mendekotasunaren printzipioekin bat etorritik, eta, edozein kasutan, legezketasun- eta inpartzialtasun-printzipioen menpe”.
 - ii. MFEO 2 art.: “Fiskaltzak pertsonalitate juridiko propioa duen garrantzia konstituzionaleko organoa da eta autonomia funtzionalez Botere Judizialean integratuta dago, organo propioen bitartez bere egitekoa betetzen du, jarduera-batasun eta menpekotasun hierarkikoaren printzipioen arabera eta betiere legezketasun eta inpartzialtasun printzipioen menpe”.

EMAN DEZAKE: BJren barruan integratuta dagoela, baina autonomia funtzionalarekin. HAU EZIN DA ONARTU. Zergatik?

- F ez dago BJKNren menpe, Justizia Ministerioaren menpe baino
- Fiskaltzak ez du funtzio jurisdikzionala egikaritzen
- Epaile eta magistratuek ez bezala, batasun-jarduera eta menpekotasun hierarkikoaren arabera jarduten du

- b. Kontzeptua: Justizia Administrazioarekin kolaboratzen duen estatuaren organoa da; gainerako botereetatik autonomiaz, eta legezketasun-printzipioaren menpe bakarrik jarduten duelarik.

BEk Fiskaltza kontrolatzen du:

1) Gobernuak Estatuko Fiskal Nagusia proposatzen du (prestigio nabaria duten 15 urte baino gehiago jarduera profesionaleko juristen artean)

2) Antolaketa piramidal eta hierarkikoa dauka.

EFNk agindu eta instrukzio orokor edo zehatzak zuzendu diezazkieke behekoei (MFEO 25 art.).

3) Justizia Ministerioak diziplina-zigorrak ezartzen dizkie fiskalei, EFNren proposamenez.

4) “El Gobierno podrá interesar del Fiscal General del Estado que promueva ante los Tribunales las actuaciones pertinentes en orden a la defensa del interés público” (MFEO 8.1 art.).

- adierazi/esan, ez agindu

- c. Antolaketa (MFEO 12 art.). Organoak:

i. Estatuko Fiskal Nagusia = organo nagusia

Erregeak izendatu, gobernuaren proposamenez, BJKN entzun ondoren; prestigio nabaria duten juristen artean (+15 urteko jarduera profesionala)

ii. Kontseilu Fiskala, Sala Fiskalen Batzarra, AAEEetako Fiskal Nagusien Batzarra

iii. AGko fiskaltza

iv. Fiskaltzak: KAn, Kontu Auzitegian, ANn, AAEEtan, Probintzietan, Area Fiskaltzak

v. Bereziak: Droga-trafikoari aurre egiteko Fiskaltza berezia, Ustelkeriari eta kriminalitate antolatuari aurre egiteko Fiskaltza berezia

- d. Funtzioak (EK 124.1 art.; BJLO 541 art.; MFEO 1, 3, 4 art.):

i. Orokorrak Honakoak babestea:

a) legezketasuna

b) herritarren eskubideak

c) interes publikoa

d) epaitegi eta auzitegien independentzia

e) epaitegietan interes sozialaren asetzea lortu

ii. Bereziak:

a) Delitutik ondorioztatutako zigor eta zibil akzioak egikaritzea

b) Zigor prozesuan alderdi gisa parte hartzea

c) Prozesu zibiletan parte hartzea, batez ere adin txikikoak eta ez gaituak daudenean

d) ... = F.ri interes publikoaren edo gizarte-interesaren babesa dagokio

- e. Fiskaltza eraentzen duten printzipioak: “Organo propioen bidez betetzen ditu Ministerio Fiskalak bere eginkizunak, jokaera-batasun eta hierarkia-mendekotasun printzipioei jarraituz, eta, edozein kasutan, legezketasun eta inpartzialtasun printzipioei atxikiz” (EK 124.2 art.)
- i. Printzipio organikoak/antolakuntza pp (EK 124.2 art., eta MFEO 22 eta 25 art.):
 1. Batasuna:
 - Fiskaltza bakarra da estatu osorako, kidego bakarra da
 - Bere burutza Estatuko Fiskal Nagusiak du
 2. Menpekotasuna:
 - Jarduera-batasuna bermatzeko F. hierarkikoki antolatzen da.
 - Beheko organoek goikoen erabakien menpe jarduten dute
 - EFNk organo bakoitzaren Fiskal Buruari agindu eta instrukzioak eman ahal dizkio, honek, bere menpekoei agintzeko.
 - ii. Jarduera printzipioak/funtzionamendu pp (EK 124.2 eta MFEO 6 eta 7 art.):
 1. Legezkotasuna:
 - F.k legearen menpe jardun behar du, EK, lege eta ordenamendu juridikoaren gainerako arauen menpe.
 - Akzio egokiak egikaritu dituzte eta behar den moduan egikaritu ez direnen aurka egin beharko du
 2. Inpartzialtasuna:
 - bere funtzioak era objektiboan eta inpartzialtasunez bete beharko ditu
 - Berme bidea: abstentzioa (errekusaziorik ez)
- f. Pertsonala:
- i. Kategoriak (MFEO 34 art.): Karrera fiskala hierarkikoki antolatuta dagoen kidego bakarraz osatzen da. Kidegoak hiru kategoriatan ditu:
 1. AGko Salako fiskalak (AGren magistratuen parekoak).
 2. Fiskalak (magistratuen parekoak).
 3. Abokatu-fiskalak (epaileen parekoak).
 - ii. Fiskaltzara sarrera (MFEO 42-45 art.):
 1. Sistema bakarra: oposizio askea.
 2. Aurkezteko baldintzak: a) Nazionalitate espainiarra, b) adin-nagusitasuna, c) zuzenbidean graduduna, d) ezgaitasun arrazoirik ez izatea
 - iii. Kategorietan igoera
 - 3.era: oposizioa
 - 3. kategoriatik 2.era: antzinasuna

- 2.etik 1.ra: gobernuaren erabaki diskrezionala, EFNren txostena kontuan hartuta

iv. Norakoen hornikuntza

- Irizpideak: erabaki diskrezionala eta antzinasuna.
- Erantzukizuneko postuak gobernuak erabakitzen ditu (AGko fiskalak, JANen Fiskal buruak...)
- Gainontzekoak lehiaketaren bitartez hornitzen dira antzinasunean oinarrituta

b) ESTATUKO ABOKATUA (BJLO 551 art.)

- Justizia Ministerioaren menpe jarduten dute.
- Estatuaren eta horren erakunde autonomoen defentsa (baita organo konstituzionalena ere legeak kontrakorik arautzen ez duen bitartean) eta ordezkaritza Estatuko Abokatuei dagokie.
- Estatuaren zerbitzu juridikoan integratuta.

III. DEFENTSA ETA ORDEZKARITZA TEKNIKOAK

A. ABOKATUAK

- a. Kontzeptua: mota guztietako prozesuetan alderdien zuzentzea eta defentsa, edo aholkularitza juridikoa profesionalki egikaritzen dutenak (BJLO 542 eta AEO 6 art.)

Lanbide liberala:

- Abokatu eta bezeroaren arteko konfiantzan oinarritua,
- Abokatuak bere konfiantzako abokatu izendatzeko eskubidea,
- Abokatuak askatasun osoarekin aritzeko eskubidea, interesak era egokienean arautzeko
- Zerbitzuen errentamendu kontratuak lotzen ditu.

b. Funtzioak

- Mota guztietako prozesuetan → alderdien zuzentze eta defentsa, posizio aktiboan/pasiboan
- Aholkularitza juridikoa

- c. Lanbidera sarrera: gaitasun profesionala lortzeko graduatuek ikastaro teorikoa egin + azterketa

d. Estatutu juridikoa:

Azpimarratzekoa: 1) abokatuak askatasuna du auzi bat onartzeko edo baztertzeko; 2) lanbide-sekretua gordetzeko eskubidea eta betebeharra; 3) adierazpen eta defentsa askatasuna; 4) fede onaren arabera jardun beharra; 5) ordainsaria jasotzeko eskubidea

- i. Bateriaezintasun eta debekuak:
 - *Politikoak*: Abokatuek ezin dute goi mailako kargu publikorik izan (AEO 22.2 a art.).
 - *Judizialak*: Abokatutza bateraezina da kargu judizial eta fiskalarekin eta organo laguntzaileekin ere (AEO 22.2 a art.).
 - *Profesionalak*: Aldi berean ezin dira prokuradoreak izan (AEO 22.2 b art.).

- ii. Eskubideak:
 - a) *Sekretu profesionala*: (eskubide-betebeharra BJLO 542.3; AEO 32, 42; ZK 467 art.)
 - Egikaritza profesionalean askatasun osoa bermatzeko;
 - aldi berean betebeharra da abokatu eta bezeroaren arteko konfiantza bermatzen baita.
 - artikuluak abokatua deklaratzetik salbuesten du bere lanbidea dela eta ezagututako egintzei dagokienez (PKL 416 art.)
 - b) *Askatasuna eta independentzia* (BJLO 542.2 eta AEO 33.2 , 41 art.).
 - Auziak onartzeko askatasuna
 - Adierazpen eta defentsa askatasuna
 - Muga bakarra: ZK eta prozesuan parte hartzen duten pertsonetikiko errespetua
 - c) *Ordainsaria kobratzea* (AEO 44 art.). Bere bezeroarekin adostuko da

- iii. Betebeharrak:
 - Sekretu profesionala
 - Justizia Administrazioarekin kooperatu (AEO 36-41 art.).
 - Bere betebeharrak betetzea zelo profesionalerik (AEO 42 art.).
 - Diziplinazko erantzukizuna. Bi motatako izan daiteke:
 - a) Epaitegi eta auzitegiek eskatuta: prozesu barruko jardueran oinarritutako diziplina zuzenketak (BJLO 552+ art.)
 - b) Elkargo Profesionalek eskatua: Betebehar profesionalak eta arau deontologikoak urratzeagatik (AEO 80+ art.)

B. PROKURADOREAK

- a. Kontzeptua eta funtzioak: prozesuan alderdien ordezkariak dute, botere egokiaren bitartez (BJLO 543 art.).
 - i. Alderdiak prozesuan aurkeztu behar diren bakoitzean prokuradorearen bitartez egiten dute.

- ii. Salbuespena (BJLO 545.3 art.): Lan-arloko eta Gizarte Segurantzari buruzko prozeduretan ordezkari lan harremanetako graduatuak eraman dezake
 - iii. Lotura juridikoa: mandatu-kontratua. Botere batean oinarritzen da (notariala edo organo judizial eskudunaren aurrean emandakoa BJLO 453.3 art.).
 - iv. Lanbide liberala eta independentea (Auzitegietako Prokuradoreen Estatutu Organikoa 1. art.) Prokuradore eta bezeroaren arteko harremana konfiantzan oinarritzen da.
- b. Lanbidera sarrera: graduatua + ikastaro teoriko praktikoa + azterketa
- c. Estatutu juridikoa (abokatuarenaren antzekoa):
- i. Betebeharrak, bateraezintasun arrazoiak, eskubide eta betebeharrak
 - ii. Lana hasi baino lehen fidantza eman behar dute, gastu judizialengatik erantzuteko (APEO 47 art.).

C. LAN HARREMANETAKO GRADUDUNA

BJLO 545.2 art.: "Lan-arloko eta Gizarte Segurantzako prozeduren kasuan, lan-harremanetako gradudun batek bete ahal izango du ordezkari tekniko. Lan-harremanetako gradudun horri aplikagarri izango zaizkio bere funtzioari datxezkion obligazioak, bat etorritik bere ordenamendu juridiko profesionalean, titulu honetan eta bereziki lege honetako 187, 542.3 eta 546 artikuluetan ezarritakoarekin".